Inge Ugalde Iriondo (1. guztira 1)
Arquitecta técnica / Arkitekta teknikoa
Sinaduraren data: 29/04/2025
HASH: 375e6d0ec90e6fce95b00ff5561c3265

MENDAROKO UDAL LORATEGIAK ETA BERDEGUNEAK KONTSERBATZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA LEIHAKETA BIDEZKO PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- KONTRATUAREN XEDEA: ZERBITZU EMATEAREN HEDADURA

Kontratu honen xedea Mendaroko lorategiak eta berdeguneak kontserbatzeko eta mantentzeko zerbitzua ematea da.

Gune horien mantentze-zerbitzuak honako hauek hartuko ditu barnean:

- Udal-mugarteko berdeguneak eta lore-ontziak mantentzea, soropilak, zuhaixkak, zuhaitzak eta lore-guneak baldintza-agiri honetan definitzen diren baldintzen arabera.
- Ezohiko jardueren antolaketatik erator daitezkeen eta lorategietan eragina duten lan bereziak.
- Galtzadarriak, arekak eta abar dituzten guneak herbizidarekin tratatzea, baita gune horietako belar txarrak kentzea eta bestelako ezohiko lan batzuk.
- Urbanizazio berriak, berdeguneen erreformak eta abar direla medio udalerrian egiten diren berdeguneetako jardunak orientatzeko eta gainbegiratzeko beharrezkoa den aholkularitza teknikoa.

2.- LURRALDE EREMUA

Kontratu honek udalerriko lorategi publiko guztien mantentzea eta garbiketa barne hartzen du.

Eranskinetan mantentze-lanen xede diren gune guztiak zerrendatzen dira.

Dokumentazio grafikoa Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan edo Udaletxeko Kontratatzailearen Profilean jaso ahal izango da, www.mendaro.eus webgunearen bidez.

3.- ZERBITZUAREN ANTOLAKETA. Egin beharreko lanak.

Erreferentzia gisa erabili beharko dira beti, bai lan horietarako, bai akats baten ondorioz aipatu ez diren beste lan batzuetarako, nekazaritzako ingeniari teknikoen elkargo ofizialetako lorezaintzako oinarrizko arau teknikoetan jasotako xedapenak, Parke eta lorategien Espainiar Elkarteak argitaratzen dituenak eta dagozkion bestelako arauak.

Lanak bereziki ondorengoak lirateke:

- Lorategi eta txorkoetan **belarra moztea**. Maiztasuna, gutxienez, jarraian zehazten dena izango da. A gunearen kasuan, gainera, belarraren luzera maximoa ezartzen da:

* A gunea, mozketa semi-intentsiboa: 10 mozketa urteko, luzera ≤ 14 cm, eta ongarriztatzea 3 urtean behin. Moztutako belarra bertan utziko da.

* B gunea, mozketa estentsiboa: 6 mozketa urtean, ez da ongarriztatuko, baina belarra jasoko da.

* C gunea, mozketa estentsiboa: urtean 3 mozketa, ez da ongarriztatuko baina belarra jasoko da.

* D gunea, mozketa estentsiboa: urtean mozketa bat, ez da ongarriztatuko baina belarra jasoko da.

* E gunea (zelai altua), A eta B gunez inguratutako hainbat eremu, tratamendu ezberdina emango zaiena, mozketa estentsiboa: urtean 3 edo 4 mozketa, ez da ongarriztatuko baina belarra jasoko da.

Balidazioko Kod.: 9QZZA29N6XMCMAT3R6MMJ73WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico/GestionaPlataformatikElektronikokiSinatutakoDokumentua | 1. orrialdea, guztira 15

*F gunea, B guneaz inguratutako hainbat eremu, tratamendu ezberdina emango zaiena, mozketa semi-intentsiboa: 13 mozketa urteko. Moztutako belarra bertan utziko da.

Nolanahi ere, mozketa egiteko orduan, belarraren altuera ez da inoiz 4 cm baino txikiagoa izango.

I. Eranskinean azaltzen da mozketen taula, guneka sailkatuta.

E eta F eremuei dagokienez, tratamendu berezia izango duten eremuak dira, A eta B guneez inguratuta egon arren (10 eta 6 mozketa dituztenak). Zelai altuaren efektua lortu nahi da E guneetan, belardiko berezko landare-espezieek lore- eta fruitu-egiturak gara ditzaten ahalbidetzeko. Egutegian zehazten den bezala, eremu horietako mozketak 3 edo 4 izango dira, denboraldiko baldintza klimatikoen arabera. Zehazki, uztailaren amaierako mozketa egin aurreko astean berretsi edo ezetsiko da, udal-langileek enpresa esleipendunaren harremanetarako pertsonari jakinarazita. (ikus I. eranskina).

F gunean sartutako eremuei dagokienez, ondoko eremuari dagozkionak baino mozketa gehiago egingo dira (13 guztira), eta, batez ere, bidezidorrak eta erabilerako elementuak inguratzen dituzten zerrendak izango dira, hala nola bankuak eta mahaiak. Bi eremuen arteko trazadurak metro bat (bidezidorrak eta banku isolatuak) eta 2 metro (mahaiak eta bankuak) arteko erabilerako espazioa uzten du. Eremu horien trazadura lerromakurra izango da, eta belarrik altuena duen eremuarekiko lotura nabarmenduko du paisaiari dagokionez. IV. eranskinean E eta F tratamendu bereziko eremuen plano zehatzagoak erantsi dira.

- **Zuhaixka eta heskaiak inaustea** (hazkunde azkar eta motela): Hazkunde azkarra dutenak urtean 3 aldiz kimatuko dira eta hazkunde motela dutenak bi aldiz, beti ere, landareen loratze garaietara egokituz (udaberrian loratzen direnak, loratu ondoren kimatuko dira eta udan loratzen direnak neguan). Dena den, zuhaixka gehienak lorerik gabekoak dira, eta bi mozketa egitea nahikoa izango da.

- **Zuhaitzak inaustea** urtean behin.

II eta III. Eranskinean zuhaitz eta zuhaixken kimaketa lanen egutegia eransten da. Platanondoak (Platanus hispánica) orriak erori aurretik inausiko dira.

- Mozketaren ondorengo **hondakinak jasotzea**: A eta F gunean hondakinak lursailean utziko dira, lekuan bertan konpostatzeko, horrela, birziklapen eta konpostatze gastuen gehikuntza eta garraioak ekidingo dira. B, C, D eta E guneetan, aldiz, belarra berehala jasoko eta eramango da.

- **Loreak landatzea** Herriko Enparantzako berdegunean. Herrian zehar dauden loreontzietan lorerik gabeko landareak landatuko dira, mantentze lan minimoak izango dituztenak (Azpilgoetako elizako plazan, ikastolaren inguruan, Trinitate kalean, eta abar). Herriko enparantzako berdeguneetako landareen birjarpena urtean bi aldiz egingo da (udaberria/udazkena) eta loreontzietako landareak beharraren arabera berrituko dira; horiek guztien horniketa, esleipendunaren kargu izango da.

- **Ongarritzea**, beharren arabera (A gunean).

- Belar txarren eta landare osasunerako tratamenduak, beharren arabera.

Baliozkotze Kod.: 9QZA29N6XMCMAT3R3BMM073WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 15

MENDAROKO
UDALA

158/2025 Espedientea

Baliozkotze Kod.: 9QZA29N6XMCMAT3RJ6MMJ73WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 15

Kontratatutako enpresak ondorengo kaleetako lorategi eta zuhaitzetan egin beharko du lan (gune horien planoak eransten dira, IV. Eranskina):

A GUNEA (gutxi gorabeherako azalera 8.845 m²):

- Trinidadeko Parkea eta Mendaro Ikastola
- Mendarozabal Auzoa (bus geltoki ingurua)
- Kilimon Hiribidea
- Herriko Enparantza eta inguruak
- N-634 Biribilgunea (errotonda)
- Etxeberri Plaza
- Azpilgoeta Auzoa (Mainuzka, Alderdi Eder, Zelaikua eta Azpilgoeta kalea)
- Mendarozabal plaza

B GUNEA (gutxi gorabeherako azalera 7.563 m²):

- Azpilgoeta (eguneko zentroa)
- Mendarozabal Auzoa (bus geltokitik gorantz)
- Mendarozabal plaza (atzealdea)
- Trinitate Kalea
- Garagartza Kalea
- Garagartzako elizaren ingurua
- Linazasoro kalea
- Marcela Osoro plaza
- Errekabarren kalea, Etxeberri plaza atzealdea
- Kilimon hiribidearen bukaera
- Kirolgunea eta kilimon etorbidearen arteko berdegunea
- Garagartza 17,19,21 atzealdea

C GUNEA (gutxi gorabeherako azalera 16.885 m²):

- Andoneikua Etorbidea eta Kirol gunea
- Mendarozabal eta Andoneikua arteko malda
- Ospitalerako bidea
- Azpilgoeta (N-634aren kontra)
- San Antonio Bazelizaren ingurua, Plaza auzorako bidea
- Biribilgunetik Azpilgoetarako berdegunea
- Kurutz Gain (N-634aren kontra)
- Erramone industrialdea, biribilgune ondoan
- Igartualdea industrialdea, sarrera aldea eta trenbide ondoa

D GUNEA (gutxi gorabeherako azalera 5.270 m²):

- Erramone industrialdea

Baliozkotze Kod.: 9QZA29N6XMCMAT3RJ6MMJ73WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 15

- Kurutz gain industrialdea
- Igartualdea industrialdea
- Azpilgoeta 2 atzealdea (Santuaran)
- Ospitalera igoera (eskuinaldea)

E GUNEA, zelai altuak (gutxi gorabeherako azalera 2.280 m²):

- Trinitate parkeko eremu bat
- Maite Maiora kirolguneko gune definitua

F GUNEA (gutxi gorabeherako azalera 1.068 m²):

- Eguneko zentroko bidexken ertzak
- Maite Maiora kirolguneko bidexken ertzak
- Andoneikuan, kirolgunearen behe aldeko eremu definitua

Adierazitako metro karratuen estimatutako azalerak gutxi gora-behera neurtuta daude; **IV. Eranskineko** (A,B,C, D, E eta F) planoetan koloreztatutako guneak izango dira azalera lotesleak eta kontratuan kontuan hartu beharrekoak.

I**. Eranskinean** adierazitako mozketa egutegia aldaketarik gabe bete beharko da, zergatia justifikatua izan ezean.

Banakako kasuetan eta ekitaldiren bat egon litekeen guneetan, Udalak mozketa hauek aurreratzea eskatu lezake.

4. ZERBITZUAREN BALIABIDEAK.- Esleipendunak, kopuruan eta gaitasun profesionalean egokiak diren langileekin eta ondorio guztietarako bere kargura dituen langileekin, baita mota guztietako makineria eta erreminten ekipoekin ere, behar den epean eta moduan erantzungo die plegu honetan zehazten diren gutxieneko lan horiek egiteari, eta udal-zerbitzuen jarraibideei jarraituko die.

5. LOREZAINTZAKO ZEREGINAK ZEHAZTEA.- Kontratu honen xede diren lorezaintza lanen baitan, ondorengoak sartzen dira:

5.1. BERDEGUNEETAKO BELARRA MOZTEA. Aldiro moztea, belar trinkoa, sendoa eta belar txarrik gabekoa izateko. Horrez gain, ez da denboraren poderioz hasiera batean landatutako espezieak baztertzen dituzten espezierik egongo. Era berean, zelaia garbia mantenuko da; paperak, plastikoak eta bestelako materialak erretiratu egin beharko dira.

Xede horretarako erabiliko den makineriak, gutxienez jarraian zehazten diren ezaugarriak edo baliokideak izango ditu:

- A gunearentzat: Eskuz erabiltzeko belarra mozteko makina Toro Turfmaster 76 cm edo antzekoa
- Eskuz erabiltzeko belarra mozteko makina HONDA HRH-536-HX (jasotzeko zestoarekin) edo antzekoa
- Eskuz erabiltzeko belarra mozteko makina AS 510 PROCLIP 4T A (*mulching*) edo antzekoa
- Aldakako esku motosega STIHL FS 460 C-EM edo antzekoa

Baliozkotze-Kod.: 9QZA29N6XMCMAT3R36MM73WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 15

- Motxiladun esku motosega STIHL FR 460 TC-M edo antzekoa
- Eskuz erabiltzeko makina desbrozadora OXALIS PLUS- KIVA edo antzekoa
- Heskaiak mozteko makina STIHL HS-87 R edo antzekoa
- Heskaiak altueran mozteko makina STIHL HL-94-145º edo antzekoa
- Haize makina STIHL BR 700 edo antzekoa
- Metagailudun STIHL BGA100 Haize makina AR3000metatzaile eta AL500 kargagailu azkarra edo antzekoa
- Beharrezkoa den eskuko edozein erreminta

Jarraian, mozketa lanak egiteko baldintza minimo batzuk zehaztuko dira:

- Belar mozketa, gainazal uniforme, siku batean egingo da. 25 mm-tik gorako landare-hondarrak eta hondakin solidoak aterako dira, makinerian kalterik ez izateko eta botatzeko arriskua saihesteko.
- Erabilitako makineria eta mozketa frekuentzia, soropil mota eta lan ingurunearen araberakoa izango da.
- Belarraren altuera soropilaren mailaren araberakoa izango da eta ingurune erregularra eta ertzak ongi moztuak izango ditu.
- Orohar, belarraren heren bat moztuko da gehienez, eta soropil motak horretarako aukera ematen duen bitartean, mozketaren altuera handia izango da, ebapotranspirazioagatik urik gal ez dadin.
- Inausketa garbia izango da, urradurak saihestuko dira, eta arreta berezia jarriko da makinekin, zuhaixka eta zuhaitzetan kalteak saihesteko.
- Soropila beste elementu begetalekin, zoladura, estolda, altzari e.a. mugakide denean, beharrezko diren baliabideekin moztuko da, mozketa altuera berdinean.
- Makineriaren erregaiaren hornikuntza soropiletik kanpo egingo da, bertan isuriak saihesteko.
- Belar mozketaren kalitatea egokia izan dadin, aiztoak uneoro zorrotzak egon beharko dute.
- Gunearen arabera, belar soberakina erretiratu egingo da edo ez.

5.2. BERDEGUNEAK UREZTATZEA. Beharraren arabera egingo da, ur gabeziaren ondorioz hazkundea gutxitu ez dadin eta hil ez daitezen.

Erabili beharreko ur-kantitatea ahalik eta txikiena eta ezinbestekoa izango da lortu nahi diren efektuak lortzeko, eta, horretarako, baliabide osagarriak erabili beharko dira, baldintza onetan. Kontuz ibili beharko du gaizki itxitako ureztatze-ahoen ondorioz, edo beste edozein arrazoi tarteko, urik gal ez dadin. Gertatzen diren matxura guztiak berehala konpondu beharko ditu. Gorabehera hauen ondorioz, lurra higatzen bada, edo bestelako kalteak eragiten badira, esleipendunaren kontura izango dira kalte guztiak.

5.3. ERTZAK, LORE MULTZOAK ETA PARTERREAK KONTSERBATZEA, OSATZEA ETA ZAINTZEA. Atal honi dagokionean, belar txarrak eskuz jorratu beharko dira. Zuhaitzen, zuhaixken eta zuhaixka multzoen inguruan kontserbatu behar diren eremu horien neurriak horien tamainaren araberakoak izango dira.

Trazatua zirkularra baldin bada, beti erradio bera izango dute, eta trazatua laukizuzena baldin bada, berriz, aldeak paraleloak izango dira, eta berdeguneak osatzen dituzten masekin batera definituko dira.

Herriko Enparantzako parterrean bakarrik landatuko dira loreak; lore landaketa indartsua burutuko da, non 25unt/m^2-ko landare kopurua erabiliko den. Eremu honetan bi landaketa egingo dira, bata udaberrian eta bestea udazkenean.

Baliozkotze kodea: 9DZA29N6XMCMAT3RJ6MMJ73WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 15

Gune hauetan ekiteko modua honako hau izango litzateke:

- Bertan dauden landareak erretiratu eta kenduko dira.
- Lurra irauli egingo da, gutxienez 40 cm.
- Zuloaren eta landaketa-esparruaren neurriak 25 und/m^2-koak izango dira gutxi gorabehera, egin beharreko landaketa, espezie, tamaina eta presentazioaren arabera.
- Klimara ongi egokitzen diren espezie eta barietateak aukeratuko dira, ur-beharrizan baxukoak
- Urteko landaketa-plangintza egingo da, espeziea, garaia, kolorea, dentsitatea eta aurkezpena definituta.
- Landareak, bere garapen, konformazio, proportzio eta osasun egoerari eskatzen zaizkion kalitate parametroak bete beharko ditu.
- Beharrezkoak izanez gero, landarearen garraioa, paketatzea, sustraien babesa, landaketa guneko manipulazioa eta bilketa egokiak izan beharko dute.
- Landaketa garaiak egokia izan beharko du, landarearen presentazioa, espeziea eta landaketa lekuaren araberakoa betiere.
- Landaketa-prozesua modu egokian egin beharko da, behar bezala finkatuta eta landatuta, betelanak behar bezala eginda. Landarea zuzen eta hutsunean zentratuta geratuko da.
- Landatzean, ongarri edo substraturen bat bota beharko da.
- Ureztaketa sistema landaketa mota, garai eta landaketa gunearen araberakoa izango da.
- Landaketa egin ondoren, gunea garbi utzi beharko da, substratu eta hondakinik gabe.

Neurri hauekin batera, birjarpen eta landaketa berrien gestio iraunkorra bultzatzen duten beste neurri batzuk kontuan hartuko dira:

- Landareen horniduran bilgarri gehiegi jartzea saihestuko da, ontzien hondakinak ahalik eta gutxien sortzeko. Erabili beharreko ontziak material birziklagarriak, biodegradagarriak edo itzultzekoak izango dira.
- Birjarpen eta landaketa berrien ondorioz sortutako loreontzi, erretilu, hondar begetal, plastikozko bilgarri eta kartoien bilketa selektiboa egingo da.
- Hondar begetalak baimendutako konpostatze planta batera eraman beharko dira, eta gainontzeko hondakinak modu egokian kudeatuko dira.

5.4. ZUHAIXKAK INAUSTEA ETA MOZTEA. Enpresa esleipendunak gune berdeko zuhaixkak eta heskaiak erregularki kontserbatu eta mantendu beharko ditu. Heskai hauen gehiengo nagusia binorria da eta urtean bi mozketa egin beharko dira. II eta III. Eranskinean adierazitako egutegia jarraituko da, eta urtero horretarako plangintza aurkeztuko da. Eranskin horretan aurreikusi gabeko lanen bat sortzen bada, enpresa esleipenduna arduratuko da lan osagarriez, betiere kontratuan zehaztutako lanen % 3 gainditzen ez badute.

Lan hauen xedea izango da zuhaixken formak hobetzea eta mantentzea, horien balio apaingarria areagotzeko helburuarekin. Inausketa beti garai egokian egingo da, eta mozketak garbiak izan beharko dira, eta gainera, moztutako lekuan orbaintzaileak emango dira, adarraren diametroa handia baldin bada. Inausketa eskuz edo baliabide mekanikoak erabilita egingo da, baina, beti kontuan izan beharko da inausketa egiteko era gomendatutakoa izan dadin, eta ez da okerreko mozketarik, itxuragabetzerik, edo mutilazio desegokirik egingo.

Heskaien mozketa modu honetan egin beharko da:

- Mozketa garai egokian egin beharko da, izozte eta bero garai nagusiak ekidinez.
- Erabilitako lanabesak, espeziea eta duten forma begetala kontuan hartuta aukeratuko dira.
- Heskaien mozketaren maiztasuna urtean bikoa izango da.
- Mozketako lanabesak garbi egon beharko dute eta aldi oro desinfektatuko dira.

Baliozkotze Kod.: 9QZA29N6XMCMAT3RJBMM073WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 15

- Mozketen hondarrak behar bezala bildu behar dira, eta eremua garbi utzi behar da. Azken lan hori mozketa egin eta berehala edo lanaldian zehar egin beharko da.

5.5. ZUHAIZTIAK ETA PARKEAK INAUSTEA. Inausketak eskailera, aldamio edo haga bidez egingo dira. Baliabide horiekin egin ezin daitezkeen kasuetan, lanak saskiaz eta beso artikulatuaz (birakaria eta teleskopikoa) egingo dira, kamioi arin baten edo plataforma baten gainetik.

II. eta III. Eranskinean adierazitako egutegia jarraituko da nahitaez, eta urtero horretarako plangintza aurkeztuko da. Eranskin horretan aurreikusi gabeko lanen bat sortzen bada, enpresa esleipenduna arduratuko da lan osagarriez, betiere kontratuan zehaztutako lanen % 3 gainditzen ez badute.

Esleipenduna arduratuko da inausketak erabiltzaileei, oinezkoei eta ibilgailuei ahalik eta kalterik txikiena egin diezaieten. Une oro, ahalegina egingo da inausketa egin behar deneko inguruan dauden ondasunei, gauzei eta hirugarrengoei kalterik ez egiteko. Ezinezkoa izango da inausketaren hondakinak, lanaldi erdi baino gehiago, espaloietan edo galtzadan uztea. Inausketaren hondakinak ibilgailu egokietan eramango dira, eta hondakinak baimendutako zabortegietan utziko dira. Udal zerbitzuetatik espezie bakoitza inausteko arauak emango dira, esleipendunak ezin izango du honen inguruko jokabiderik hartu, aldez aurretik, kontsultarik egin gabe. Hala, horrelako gorabeheraren bat gertatuz gero, zigorra jarri ahal izango zaio.

Inausteko irizpide orokorrak izango dira adaburuaren sortzearekin, adar arriskutsuak kentzearekin, apainketa balioa handitzearekin eta indar begetatiboa haztearekin zerikusia dutenak.

Hiru ekiteko era desberdintzen ditugu:

- Mantentze kimaketa. Ondo garatutako zuhaitzetan inausten da normalean, adar lehorrak mugatzean edo hiri-altzariekiko interferentzietan (argiteria) oinarrituta. Modu argigarrian esan genezake mantentze-inausketa egiten zaion zuhaitzari ez zaiola nabaritu behar adarrik moztu zaionik.
- Birbideratzeko kimaketa. Gaur egun, landare zaintzarekin erlaziorik ez duten arrazoiengatik hainbat zuhaitz desitxuratuak daude. Horregatik zuhaitz hauek beren ohiko adaburu egiturara birbideratu beharra egon ohi da. Inausketa horiek egiteko, jarraipen zorrotza egin behar da lehenengo bi urteetan, baina, denborarekin, mantentze-lanak inausiko lirateke.
- Adaburua gutxitzeko kimaketa. Kimaketa hauek landareentzako nahiko gogorrak izan ohi dira nahiz eta epe ertainera begira itxura batean landarearen osasunean ez duen zuzeneko eraginik. Kimaketa hauek denboran zehar eragiten dute eta landareak ustel ditzakete; biztanleen segurtasunean eragina izan dezakete zuhaitzaren dimentsioaren arabera.

Era berean, hiru kimaketa mota ezberdin izango ditugu:

- Formakuntza kimaketa: Zuhaitz gazte eta landatu berrietan egiten dena da. Begetazioari eutsiko dion egitura zurrun bat lortu arte egiten dena.
- Mantentze kimaketa: Zuhaitzaren gorpuzkera, loraldia e.a. bereizgarriak mantentzeko egiten den kimaketa da, aurkitzen den ingurunearen mugak kontutan harturik.
- Sahats buru motako kimaketa: Urteko adarrak moztera mugatuko da soilik, adar hauek arrasean mozten dira motzondoraino.

Lanok egiteko orduan, kontuan eduki beharko da:

Baliozkotze Kod.: 9QZA29N6XMCMAT3R06MMJ73WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 15

- 10 cm-tik gorako diametroko adar lodiak moztea ekidingo da. Guztiz beharrezkoa izanez gero, mozketa garbia izango da eta fungizida orbaintzailea erabiliko beharko da ondoren zauria ixten laguntzeko.
- Koniferak ez dira kimatu behar, baizik eta adar punten mozketa edo pintzamendua eta hildako adarren erretiratzea egingo da soilik.
- Adaburua duten zuhaitzetan, zurtoina adarrik gabe mantenduko da, lurretik adaburuaren hasiera arte.
- Udaberrian loratzen diren zuhaitz eta zuhaixkak, loraldia bukatu eta honen jarraian kimatu beharko dira.
- Udan loratzen diren zuhaitz eta zuhaixkak, neguan kimatuko dira.
- Hosto apaingarriak dituzten zuhaixkak udazkenean moztuko dira.
- Topiaria formak, begetazio garaietan moztuko dira (martxotik urrira)
- Kimaketaren bitartez, landarearen aireztapen eta eguzki izpien sarrera maximoa lortu beharko da
- Behin-betiko moztuko diren adarrak, kailutik hasita arrasean moztu beharko dira.
- Kimaketa egurrak moztu, lotu eta adjudikaziodunaren kontura garraiatu beharko dira, Udal Zerbitzuek zehazten duen gunera, mozten den egun berean.
- Hildako eta lehortutako adar guztiak kimaketa lanak egitean kendu beharko dira.

Zuhaixkak eta zuhaitzak inausteko erabiltzen diren makinek gutxienez jarraian zehazten diren ezaugarriak, edo baliokideak, izango dituzte:

- Aldakako esku motosega STIHL FS 460 C-EM edo antzekoa
- Motxiladun esku motosega STIHL FR 460 TC-M edo antzekoa
- Heskaiak mozteko makina STIHL HS-87 R edo antzekoa
- Heskaiak altueran mozteko makina STIHL HL-94-145º edo antzekoa
- Gasolinadun motozerra. MS 262 C-M edo antzekoa
- Beharrezkoa den eskuko edozein erreminta

5.6. ONGARRI KIMIKOAK ETA ORGANIKOAK**.** Ongarri mineral konplexuak, mikronutrienteak, kelatoak eta landare horien garapen begetatiboa eta egoera fisiologiko ezin hobea lortzeko beharrezkoak diren produktu mineral guztiak ematean datza. Garaiko loreen eremuan urtean behin ongarriztatu beharra egoten da. Aldiz, soropil eremuetan, hiru urtetik behin egitea nahikoa litzateke.

5.7. TRATAMENDU FITOSANITARIOA. Zuhaiztietan eta landaketetan ager daitezkeen eta jasan ditzaketen izurriteen eta gaixotasunen aurka borrokatzeko jarduera izango da, bai eta dagozkien prebentzio-tratamenduak ere. Erabili beharreko produktuek irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko dute, landareen osasunerako produktuen erabilera jasangarri bat lortzeko ekintza eremua ezartzen duena. Produktu horiek beharrezko neurriak hartuta aplikatuko dira, mota horretako lanek oinezkoei eta ibilgailuei eragin dakizkieken kalteak ekiditeko.

5.8. LOREONTZIAK. Herrian dauden hiri-altzarien eta fabriken loreontzien multzoa mantentzea. Enpresa lizitatzaileak egoera ezin hobean eduki beharko ditu.

5.9. ZELAIAK AIREZTATZEA, AITZURTZEA, JORRATZEA ETA ARRASTELATZEA. Belarraren gainetik, urtean behin gutxienez, aireztatzaile bat pasatuko da, eta ondoren, zelaiak mantutxoarekin edo zohikatzarekin eta hondarrarekin berrelikatuko dira. Belar txarrak kenduko dira, landaketak zainduta edo eskuz. Belar-pozoiak, berriz, Udal Zerbitzuek zehazten duten kasuetan bakarrik erabiliko dira. Txorkoetako belarrak atera egingo dira, behar beste aldiz. Belar horiek ez

Baliozkotze Kod.: 9QZA29N6XMCMAT3RJ6MM73WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 15

inoiz moztuko, eta Udal Zerbitzuek baimena eman ostean, belar-pozoiak erabili ahal izango dira. Lursaila trinkotu ez dadin zoruak sarri eskuaretuko dira, eta batik bat, belarra mozten den edo lurra aitzurtzen den bakoitzean.

5.10. ZUHAITZAK. Udal-lorategietako zuhaitz hilak edo udal-zerbitzuek egokitzat jotzen dituztenak enpresa kontratistak eraitsiko ditu, adierazi zaion moduan, egokitzat jotzen duen erabilera emanez. Esleipendunak egingo ditu udalerri honetako parkeetan, lorategietan eta kaleetan zuhaitzak ordezkatzeko edo zuhaitz berriak landatzeko lanak.

5.11. LANDAKETAK. Landaketen landare materiala, gaixotasun, izurrite, zauriak bezalako osasun arazoetatik salbu egon beharko du, ondo osatua egon beharko du (ondo osaturiko erdiko ardatza duten zuhaitzen kasuan) eta landareek osasun txartelak izango dituzte.

Landaketak, landare motaren arabera egingo dira, bere geldiune begetatibo unean. Posible ez balitz, denboralditik kanpo, edukiontzietan ekarritako landareekin egin beharko dira.

Kontratistak tutoreak ipiniko ditu, landaketa egin aurretik, eta 3-4 urtetara kenduko ditu.

5.12. INBENTARIOAREN EGUNERAKETA. Enpresa esleipendunak Udal inbentarioa eguneratzeko datuak eman beharko ditu, udaleko Sail Teknikoak esandakoaren arabera.

5.13. HONDAR BEGETALAK. Landare-elementuak mantentzearen ondorioz, hondarrak sortzen dira, hala nola adarrak, enborrak, hostoak, moztutako belarra... Egun horretan bertan bildu beharko dira, besteak beste, belar-ebaketaren deskonposizio-usaina, oinezkoek berdegunetik ibiltzeko dituzten zailtasunak, bandalismoa, sute-arriskuak eta abar saihesteko.

Bi hondakin mota nagusi ezberdinduko genituzke; batetik, kimaketako egurra eta bestetik, moztutako belarra.

- KIMAKETA HONDARRA: birrintzeko makina edukiz gero, kimaketako hondarrak sortu heinean birrinduko lirateke, gero estaltzaile gisa erabili ahal izateko.
- BELAR MOZTUA: belar moztu berria, birrintzeko makinaz mozten ez dena, berriz, jaso eta baimendutako zabortegira eramango litzateke hiri-konposta egin eta gerora berdeguneetan berriro erabiltzeko.

6. IKUSKAPENA ETA KONTROLA.

6.1. LAN ETA GORABEHERAK PARTEAK. Enpresa esleipendunaren ordezkariak egindako lanen parteak eman beharko dizkie udal-zerbitzu teknikoei, jardundako hilabetearen amaieran. Hileko parteek jasoko dituzte:

- Jardunaldi bakoitzean egindako lanak
- Esku hartu den eremuak
- Eskainitako orduak
- Atzemandako aurreikuspenak edo gabeziak.
- Herritarren kexak edo oharrak, gorabeherak

Era berean, gorabeheren partea entregatuko da ikusitako kalteak eta arazoak dituzten jazoeren kasuan eta zerbitzu teknikoak finkatzen dituen beste datu batzuen kasuan (inbentario-aldaketak, erabilitako materialak, etab.).

Bantzkotze Kod.: 9QZA29N6XMCMAT3RJ6MMJ73WC
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 15

Udal-zerbitzu teknikoek aldez aurretik onartuko duten formatuan entregatuko dira aipatu diren parteak.

6.2. ATZERAPENAK LANAK EGITERAKOAN. Lan bat egiteko epea enpresa kontratistak gauzatu ez badu, justifikatutako arrazoirik egon gabe, udaleko zerbitzu teknikoko langileek lana beste enpresa edo kontratista bati eska diezaiokete, enpresa esleipendunari jakinarazita eta haren kargura.

Baliozkotze Kod.: 9QZA29N6XMCMAT3RJ6MMJ73WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 15

7. LIZITATZAILEEN BETEBEHARRAK.

7.1. ENPRESAREN EGITURA. Enpresa esleipendunak zerbitzuaren ohiko premiei eta sor daitezkeen gorabeherei aurre egiteko egitura izan beharko du. Oro har, beharrezko langileak izan beharko ditu zeregin horretara destinatuta, agiri honetan xehatzen den lan-programa beharrezko baliabide teknikoekin eta segurtasun-neurri egokiekin garatzeko eta sor daitezkeen laneko bajak bete ahal izateko. Plantilla administrazio-pleguen Xedapen Gehigarrian zehaztutako kategorietan eta lanaldietan subrogatuta mantendu beharko du, salbu eta langileak kategoriaz igotzen badira enpresaren barruan. Udalak plantillan gertatzen diren aldaketak baimendu beharko ditu.

Zerbitzuak lantaldearen arduradun bat izango du, taldeko kide guztiak zuzenduko dituena eta Udalak egunero eman ditzakeen jarraibideak bideratuko dituena.

Lantaldearen arduradunak euskaraz Europako Erreferentzia Markoaren araberako B2 maila izan beharko du ahoz eta idatziz.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bidea erabili ahal izango da.

- Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea. Dekretu honetan jasotzen diren agirien bitartez egiaztatuko da hizkuntza gaitasuna: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira hizkuntza titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako kasuak.

Baldin eta, behin kontratazioa adjudikatuta, hizkuntza gaitasuna akreditatu duten langileetakoren bat beste pertsona batek ordezten badu, pertsona horrek ere akreditatua izan beharko du gutxienez ordezkatu duen langilearen adinako hizkuntza gaitasuna.

Adierazitako ziurtagiri edo salbuespen agirien bidez egiaztatu ezin denean, administrazioak ezagutza maila baieztatzeko proba egitea erabaki dezake (proba horretan lortutako mailak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Enpresak, halaber, arduradun tekniko bat izango du, lana behar bezala egiten dela gainbegiratu eta kontrolatzeko. Arduradun horrek, Udalarekin lankidetzan, zerbitzuaren etengabeko jarraipena egingo du, aldian behin udal-zerbitzu teknikoekin bilerak eginez, iradokizunak jasoz, hobekuntzak proposatuz eta sor daitezkeen ezohiko egoerei aurre egiteko behar diren baliabideak eskuratuz.

Enpresak modu iraunkorrean eta aldi baterako erantzun beharko du zerbitzura bideratutako giza baliabideen egokitasunaz, eta, era berean, langileen ongizatea eta gogobetetze pertsonala bermatu beharko ditu beren lanean.

Enpresa esleipendunak bere egituran eduki beharko ditu aplikazio informatiko estandarretan (dokumentazioa, lan-parteak, korrespondentzia, etab.) informazioa egiteko eta transmititzeko gaitasuna duten langileak.

Produktuen eta kontsumigarrien stock nahikoa eta behar bezala kudeatua izango du baita ere zerbitzua etenaldirik gabe egingo dela bermatzeko. Produktu eta kontsumigarri horiek ingurumen-homologazioren batera egokitzen direla baloratuko da: Europako etiketa ekologikoa, eta abar.

7.2. LIZITATZAILEEN GAITASUNA. Lizitazio honetan parte hartu nahi duten pertsona natural edo juridikoek lehiaketa honen xede diren zerbitzuak egiteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute.

Baliozkotze kod.: 9QZA29N6XMCMAT3RJ6MMJ73WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 15

Enpresa esleipendunak ezin izango ditu Kontratutik eratorritako eskubideak edo betebeharrak azpierrentan eman, laga edo hirugarrenei eskualdatu, ezinbesteko kasuetan izan ezik eta Udalaren aldez aurreko baimenarekin.

7.3. BITARTEKOAK ZERBITZUARI ATXIKITZEA. Lizitatzaileek zerbitzua egiteko beharrezkoak diren makinak eta erremintak eduki beharko dituzte; gutxienez, dokumentu honetan zeregin bakoitzerako zehaztutakoak izango dira.

Oro har, beren lana dagokion segurtasun-mailarekin egiteko beharrezko baliabideak izango dituzte.

LOKALAK. Kontratistak behar bezala egokitutako lokal bat izango du udal-mugartean, bertan makinak gordetzeko eta zerbitzuko langileen aldagela gisa erabiltzeko. Era berean telefono-zenbaki bat izan beharko du zerbitzuari buruzko abisuak jasotzeko, bulego-ordutegiarekin.

7.4. LANEN SEGURTASUNA. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea eta Segurtasunaren eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela ziurtatzeko, lehiaketa honen esleipendun izan nahi duten enpresek, dagokien arriskuen ebaluazioa eginda izatea justifikatu behar dute adierazpen baten bidez. Enpresa esleipendunak Arriskuen Ebaluazio Espezifiko bat aurkeztu beharko du zerbitzua ematen hasi aurretik. Ebaluazio horretan, langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko hartu beharreko prebentzio-neurriak jasoko dira, bai langile propioenak, bai autonomoenak, bai azpikontratatu daitezkeen beste enpresa batzuenak.

Aipaturiko Arrisku Ebaluazio Espezifikoa, enpresa esleipendunek egikaritu eta gauzatu beharko dute. Bertan jasoko dira:

- Formazio, informazio eta gaitasun neurriak, kontrataziori loturik dauden langileei orokorrean ematekoa, lan bakoitzean egon daitezkeen arriskuen inguruan, ekipamenduen erabilera eta erabili beharreko babes neurrien ingurukoa.

- Erabili beharreko ekipo guztiek, osasunerako arriskutsuak izan daitezkeenek, dagokion egokitasun Ziurtagiria (EE) izateko konpromisoa, edo, makinetan, adostasuna egiaztatu izana.

- Arriskuentzako baterako neurri edota babes neurriak jatorrian aplikatu ezin badira, banakako babes ekipoen erabilera derrigorrezkoa izango da. Lan desberdinetan enpresa esleipendunek erabili beharreko EPI-en zerrenda lagungarria erantsiko da.

- Arrisku berezi edota inguruneko muturreko baldintzen kasuetan lanak egiteko antolaketa neurriak kontutan hartuko dira.

- Bide publikoaren okupazio bakoitzarentzat edota hirugarrenentzat arriskua izan dezaketen lanak hasi aurretik, dagokion seinaleztapena ezarri beharko da. Seinale hauek ondorengoa bete beharko dute:

  - Sinesgarria eta justifikatua izatea.
  - Lanen bilakaerari jarraitzea.
  - Harekin kontraesanean dagoen seinale iraunkorra ezeztatzea.
  - Beharrezkoa izateari utzi bezain laster desagertzea.

- Lanak burutzeko bide publikoan kokaturiko ibilgailu guztiek, atzera botatzeko argi eta soinu ohartarazleak izan beharko dituzte.

- Produktu fitosanitarioak eta kimikoak dituzten ontziek behar bezala etiketatuta egon beharko dute, eta dagozkien segurtasun-fitxak izan beharko dituzte. Horiek erabiltzen dituzten langileek behar bezala hornituta eta gaituta egon beharko dute.

Balioztatze Kod.: 9QZ29N6XMCMAT3RJ6MMJ73WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 15

- Altuera-erorketak, partikulen proiekzioak, ebakiak eta harrapaketak dira presentzia maila handiena duten lan-arriskuak, baita larrienak ere. Egin beharreko lanen ezaugarriak direla eta, gehiegizko esfortzuekin eta jarrera behartuekin lotutako prebentzio-jarduerak ere kontuan hartuko dira.

7.5. ZARATEN ETA BIBRAZIOEN EMISIOA. Bereziki baloratuko da zarata eta bibrazio gutxi eragiten duten baliabideak erabiltzea. Lizitatzaileek, egiten dituzten proposamenetan, zerbitzuan erabiliko dituzten ibilgailuek eta makinek eragin dezaketen zarata-maila adieraziko dute. Horretarako, erabiliko diren makinen eta erreminten fitxa teknikoak erantsi beharko dira, eragiten duten zarata-emisioari buruzko datuak barne hartuz.

Edonola ere, zerbitzuak erabilitako haize-makinen zarata-mailak ez ditu 86 dB(A) gaindituko. Horretarako metagailua duten haize-makinak erabili behar badira ere.

Erreklamazioren bat egiten bada, udalak maila akustikoaren neurketak egitea eskatu ahal izango du, eta baldintza hori betetzen ez duten lanabesen erabilera debekatu ahal izango du.

7.6 KOMUNIKAZIOA.

7.6.1. Errotuluak, kartelak…: Errotuluak, kartelak, seinaleak eta antzeko elementuak euskaraz egongo dira, eta, hori ezinezkoa bada, ele biz idatziko dira, Udalak barne erabilera planean zehaztutakoari jarraiki.

7.6.2. Inprimakiak, esku-orriak…: Herritarrentzako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, eta bestelako agiriak…) euskaraz egingo dira; betiere, hizkuntza ofizialetako hiztunen hizkuntz eskubideak bermatuta.

7.6.3. Ahozko komunikazioa: Herritarrekin harremana duten langileek herritarren hizkuntza eskubideak bermatu beharko dituzte.

8. MANTENTZEN DIREN LORATEGIEKIKO ERANTZUKIZUNA. Enpresa kontratista izango da landaketetan ez zaintzeagatik, ez ureztatzeagatik eta abarrengatik sortutako akatsen erantzulea, bai eta zerbitzua emateak eskatzen dituen lanak egiteak eragindako edozein motatako istripu, kalte edo galeren erantzulea ere. Nolanahi ere, horiek guztiak berehala konpondu beharko ditu.

Kontratak berdeguneetan sortutako kalteen edo edozein motatako kalteen erantzukizuna izan behar badu, beharrezkotzat jotzen dituen ekintzak gauzatu ahal izango ditu hirugarren pertsonei zor zaizkien kalte-ordainak erreklamatzeko, baldin eta hirugarren horiek egitate horien erantzule zibil edo kriminal izan badaitezke. Horren berri emango dio udalari, egoki iritzitako ondorioetarako esku hartu ahal izan dezan.

Mendaron, sinaduraren datan.

Inge Ugalde Iriondo
Udal arkitekto teknikoa

I Eranskina: Mantentze lanen egutegia

II eta III Eranskina: Zuhaitz eta zuhaixka kimaketa lanen egutegia

Baliozkotze Kod.: 9QZA29N6XMCMAT3RJ6MMJ73WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 15

IV Eranskina: Lan egin beharreko guneen planoa eta tratamendu berezia duten guneen xehetasunak.

Baliozkotze Kod.: 9QZA29N6XMCMAT3RJ6MMJ73WQ
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 15